



Kostaldeko Done Jakue Bidea

Donostia San Sebastián → Orio → Zarautz → Getaria → **ETAPA** Zumaia → Deba



Ibilbidearen mapa

Ibilbidearen profila

Ibilbidearen deskribapena

Erromesentzako aterpea

Turismo bulegoa



ETAPA

Zumaia → Deba



HASIERA

◀ ▶





abiatzen den pistari helduko diogu. Otakor mendia inguratuz, N-634 errepideak A-8 autobidearen gainean egiten duen zubira eramango gaitu bideak. Puntu horretatik aurrera, hurrengo 400 bat metroetan, errepidearen ezkerreko aldetik joatea komeni da, errepidearen eskuinaldean agertuko zaigun zementuzko pistara iritsi arte. Pista horretatik Itziarrera iritsiko gara.

Itziarko santutegia Euskal Herriko Donejakue bideko beste mugarri garrantzitsu bat da, bai bere Ama Birjinagatik, Gipuzkoako zaharrenetakoa bera, bai bere inguruan zabaldutako usteagatik: erromesak Santiagorainoko bidean gaixotasunetatik babesten omen zituen. Itziarko Andre Maria erromesen topagune garrantzitsua izan da mendeetan zehar, eta handia izan da berarenganako debozioa, bereziki Gipuzkoako marinelen eta arrantzaleen artean. Historian zehar inguruko marinelek Ama Birjinari eskerrak emateko ekarritako hainbat zinopari ikusgai daude oraindik santutegian. Ez zaio, ez, alferrik eman Itziarko Ama Birjinari *Itsasoko Izarra* edo *Stella Maris* izena. Itziarko Ama Birjina eskultura erromaniko oso polita da, ziurrenik XII. mendekoa, eta Gipuzkoa osoan aurkitzen diren estilo horretako bi Ama Birjinetako bat da. Itziarren garrantzia nabarmena zen jada Goi Erdi Aroan, XII. mendearen inguruan, eta 1294. urtean lortu zuen



Itziarko santutegia



Itziar - Deba

herri-izaera. Hala eta guztiz ere, itsasertzetik eta Deba ibarretik urruti samar zegoenez, eta horiek zirenez inguruetako merkataritza-harremanak bideratzen zituzten lekuak, 1343. urtean herria itsasbazterrera Debara lekualdatu zuten.

Itziarko santutegia gaur egungo erromesaldiekin lotura zuzena gordetzen duen mugarri garrantzitsuenetakoa dugu; Donostiatik Itziarrerako ibilaldia, esate baterako, urtero-urtero egiten da.

Santutegiaren ondotik hormigoizko pista bat abiatzen da, Deba herrirantz jaisten den galtzada zaharra estaltzen duena. Zati labur baten ondoren, San Juan Zar ermitaren aldamenetik igaroko gara: gaur egun baserri bihurtua dagoen eraikin honen etxaurrean harri baten gainean zizelatutako gizaki baten irudia ikus daiteke oraindik. Bideak beherantz jarraitzen du pixkanaka, galtzada zahar-zahar baten gainean eraikitako pista batetik; bide ertzean arte ugari ikusiko dugu, itsasbazter honetan nagusi zen antzinako baso ederraren lekuko. Donibane baserria atzean utzi ondoren, gure bidetik atera eta Santa Katalina ermita ikustera joan gaitzke; izan ere, merezi du itsasbazterraren gaineko begiratoki bikain honetan geldialditxo bat egitea.



San Sebastián - Elorriaga



Elorriaga

